

Jaun/Andre hori:

2021eko irailaren 23an, Osakidetzako aldi baterako kontratazio-zerrendetan izena emateko eskaera egin zenuen, www.osakidetz.euskadi.eus webgunean dagoen aplikazioaren bidez (ibilbidea: profesionalentzako zerbitzuak/enplegu publikoa/aldi baterako kontratazioa).

Egun horretako ordu batzuetan segurtasuna hautsi zen aplikazioan, eta horrek eragina izan zuen zure datu pertsonaletan (NAN, izen-abizenak, jaioteguna, sexua, nazionalitatea, udalerria, posta-kodea, probintzia, herrialdea, telefono-zenbakia, posta elektronikoa eta desgaitasuna). Prozesu berean eskaera egiten ari ziren beste pertsona batzuek datu horietara sartu ahal izan ziren.

Horren berri izan bezain laster, eten egin zen kontratazio-zerrendetan izena emateko zerbitzua, eta une horretan bertan eten zen sartzeko aukera ere, datuen segurtasuna zaintze aldera. Era berean, horren berri eman zitzaion atzerapen bidegaberik gabe datuen babesaren arloko kontrol-agintaritzari.

Jakinarazi nahi dizuegu aplikazioa irailaren 23an irekita egon zen aldian egindako eskaera guztiak baliogabetzea erabaki dela, datuen osotasuna bermatu ezin delako.

Jakinarazten dizugu aplikazioa zuzendu egin dela, datu pertsonalen kudeaketan segurtasuna bermatu ahal izateko.

Arazo teknikoak konponduta, izena emateko epea berriro irekiko da 2021eko urriaren 4ko 9:00etatik, eta eskabideak aurkezteko epea 2021eko azaroaren 4ko 14:00ak arte luzatuko da.

Jakinarazten dizugu beste inskripzio bat egin beharko duzula; izan ere, adierazi dizugun bezala, beharrezkoa izan da irailaren 23an aplikazioa irekita egon zen aldian egindako eskaera guztiak baliogabetzea, besteak beste, zuk egindako eskaera.

Barkamena eskatzen dizugu ezusteko egoera horrek eragindako arazoengatik, eta jakinarazten dizugu informazio gehiago eskuratu ahal izango duzula Giza Baliabideak Hautatzeko eta Hornitzeko zuzendariordeztaren bitartez. 2021lp-lc@osakidetz.eus

KONTRATAZIO ZERBITZUA